

Europako Halterofilia Txapelketan

Jon Sasiain izan da uda honetan ▶ 3



Jende ugari izan da Tolosan Garagardo Festako lehen bi egunetan

TOLOSA ▶ Kirolariek zabaldu zuten ostegunean; gaur txirrindu proba, pailazoak eta txaranga izango dira ▶ 4-5



Ostegunean zabaldu zen garagardo azoka eta jende ugari bildu zen Zerkausion. AMAIA BELAUNZARAN



GARAZI AZKUE

Oinezkoen guneak eta bidegorriak eskatu dituzte

TOLOSALDEA ▶ Mugikortasun Iraunkorraren Astean ekitaldi ugari izan dira, informazioa banatuz eta garraio publikoa defendatuz ▶ 2-3

ORENDAIN ▶

Sega apustuaren zehaztasunak urriaren 11n adostuko dituzte

Ormaetxea 'Urki' eta Mitxelena Cantabrico tabernan elkartu ziren ▶ 7



O.ESKITXABEL

ANOETA-IRURA ▶

Bi ikastolak omenduko dituzte gaur Bilbon

Kalitateko Zilarrezko Q-a lortu zutelako ▶ 6

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA ▶

Tolosan oinezkoen guneak eskatu dituzten bezala, Zizurkilen bidegorrriak

Eskualdean hainbat ekitaldi burutu dira aste honen baitan eta aldarrikapenak ez ezik, informazio banaketa eta garraio publikoa gehiago erabiltzeko deia egin da



24 ordu oinez ekimenaren baitan, ikastetxez ikastetxe ibili ziren goiz guztian ikasleak. G. AZKUE

Bidegorriaren aurreproiektua Zizurkilen

Herenegun aurkeztu zuten jendaurrean, Villabona, Asteasu eta Zizurkil lotuko litzkeen bidegorriaren aurreproiektua Atxulondo kultur etxean.

Egoitz Sorozabal Zizurkilgo Udaleko zinegotziak azaldu zituen aurreproiektuaren nondik norakoak. «Asteasura doan bidean jende asko ibiltzen da oinez eta korrika; baina oso bide arriskutsua da horretarako». Arrisku horiek ekiditeko, Danenatik Asteasura bitarteko bidegorria eraiki nahi du Udalak. «3,8 kilome-

troko bidea izango litzateke, 3 metroko zabalerarekin», aipatu zuen Sorozabalek. Bidean zehar bi atsedeen leku jarriko litzukete, mahaiekin eta aulkiekin bertan bazkaldu ahal izateko.

Dena dela, helburua, «lehenik eta behin, aurreproiektu hau proiektu bihurtzea» dela aipatu zuten, «ondoren hiru Udalek batera dirulaguntzak lortzeko».

Bidegorria eratzearen helburua, «Mugikortasun Iraunkorraren Asteak duen helburu



Bidegorriaren aurreproiektuaren aurkezpena. G. AZKUE

berbera» dela aipatu zuen Sorozabalek; «inguruan badago bizikletan eta korrika ibiltzeko zaletasuna, baina ez dago leku egokirik horretarako; beraz, kirolari horientzat segurtasuna lortzea da helburuetako bat. Baita, kirola egiten ez dutenak horretara bultzatzea ere. Eta azkenik, lanera bizikletan joateko erraztasunak jarri nahi ditugu», argitu zuen Egoitz Sorozabalek.

Aurreproiektuaren planoa Atxulondo kultur etxean egongo da ikusgai irailaren 21a

J. ASTIBIA/G. AZKUE

1998 urtean Frantzia eta Italian Autorik Gabeko Eguna antolatu zenetik, horrelako ekimenak urtez urte arrakasta handituz joan dira eta Europa osora hedatu, egun Mugikortasun Iraunkorreko Astea antolatzen delarik bertako herrialdeia guztietan.

Euskal Herrian oraindino ez du oihartzun handiegirik lortu, baina horrelako asteak antolatzeko diru laguntzak bideratzen hasiz geroztik, oihutara finkatzen ari dela dirudi. Horrela, aurtun 90 herritan ekimen desberdinak antolatu dituzte gai honen inguruan, helduengan kotxearen erabilpen arrazionalagoa egiteko erreflexiora bulkatu eta garraio publikoaren erabilera gehitzeko xedez, beste arrazoiak tarteko.

Horrela, aste honetarako iragarrita dagoen egitarauaren barruan, atzo, goizean hasita, «24 ordu oinez» ekimena burutu zuten Tolosan bertako ikastetxeek. 9:00etan Triangulo plazatik atera ziren eta txandaka-txandaka, herrian barna, ikastetxe guztiak lotu zituen ibilbidea burutu (oinezkoentzako bideak eta guneak eskatzeko» helburuz.

Bi ibilbide zituzten egitekoak, egunez bata eta gauzez bestea. Egunekoan 7.117 metro luzeko ibilaldia egin zuten. Ikastetxe bakoitzak bere zatia zuen egitekoa: ikasle nahiz irakasleek, aste honi dagokion elastikoa soinean, bandera bat zuten ezaugarri eta bidean topatzen zituzten oinezkoiei ez ezik, auto-gidariei ere esku-orriak banatu zizkieten, oinez ibiltzeak dituen abantailak eta ingurumenari eginen litzaiokoen mesedea azalduz. Gauerako beste 8.875 metroko ibilbidea zuten prestatuta.

Erniopeko bira

Eta bihar, berriz, aste honen baitan bertan, zonaldeko herri guztiek parte hartzen duten txirrindulari martxa izango da; Erniopeko Txirrindulari Bira.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu Gorosabel 40ean. Ganbara eta garajearekin.
Salgai (Tolosa). Baju komertzialak Beldate eta Nagusia kalean.
Salgai (Tolosa). Pisu Araba Etorbi dean Garajea eta trastelekuarekin.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremendi kalean. Pizzeria edo bokolategia jartzeko egokia.
Alokatzeko (Tolosa). Bulegoa Korreo kalean 1.pisua igogailuarekin.
Alokatzeko (Tolosa). 145m²-ko bulegoa Larramendi kalean.
Alokatzeko (Iruia). Garajeak Mikel Goi Aingeru enparantzan.
Alokatzeko (Tolosa). Garaje irekiak Larramendi eta Araba Etorbidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitze eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek,
argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

Dantza Aretoa
ERKINTZA
Aerobik, stepak, pilates metodoa dantza modernoan - Jazz, latinoak, areto dantza, baleta...
Tlf.: 943 67 41 49
Euskal Herria, 17-behea *20400 IBARRA

ETXEBIZITZA SALGAI AMAROTZEN (TOLOSA)
3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritua, erdi amuebiatua eguzkitsua, ikuspegi onak
607 534 670
(20:00etatik 22:00ak bitarte)

VILLABONA/ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Zizurkildarrak Europako txapelketan

Kortajarenak Elbarrenako trofeoa lortu eta hiru errekor hautsi zituen



Jon Sasiain pultsularia. HITZA

EGITARAUA ▶

Gaur, larunbata:

ANOETA

18:00. Umeentzako ikuskizuna: Korri, Salto eta Brinkoren *Ezin geratu*. Udal areto nagusian.

TOLOSA

12:00. 24 ordu oinez-en bukaerako festa. Triangulon.
17:00. Txirringulak proba herrian zehar.

ZIZURKIL

11:00-14:00. Bizikleten txekoak, doan. Joxe Arregi plazan.

Honek, Tolosa eta Zizurkil elkartuko ditu txirringaz, Anoeta, Irura eta Villabonatik pasaz. Bira honi goizez ekingo zaio, 9:00etan, Tolosako Triangulo plazatik abiatuz, eta igarotzen den herri guztietatik, txirringulak elkartuz joango zaizkio: Anoetan, bertako ikastolara 9:30ean iristeko asmoa da; handik Irurako San Migel plazara joango dira 9:45erako; gero, berriz, buelta Anoetara eta hurrengo herria, Villabona, Erreboteko plazan 10:15ean elkartuko dira martxarekin; azkenik 10:30ean Zizurkilgo Joxe Arregi plazara iristeko. Han bilduko dira, Erniopeko Txirringulak Bira honetara herriz herri gehituz joango diren marxalari guztiak. Ondoren, berriz Tolosarantz itzuliko dira.

Antolatzaileen esanetan «autoa egun batez ahaztu eta garraibide modura bizikleta ibiltzeko aukera paregabea izango da», diote. Ekitaldi honetan parte hartzeko deia adin guztietako jendeari egin diete «zure osasunak eta ingurumenak eskertuko dizute», argudiatuz.

Edozein moduz, bira honetan parte hartzerik ezin izango dutenentzat ere, bestelako ekintzak daude antolatuta ibilbideko herrietan. Hala, Villabonan esaterako, 10:30ean hasi eta 13:00etara. Erreboteko plazan ginkana, jokoak... antolatu dituzte, baita Anoetan ere. Iruran, San Migel plazan Erniopeko birari buruzko marrazketa saioa izanen da aukeran. Ibilbideko herri guztietan, elastikuak banatuko dituzte. Jardunaldiari amaiera emateko, hasierako puntu berebean, hots Tolosako Triangulo plazan, ongietorriaren ondoren, bukatzeko hamaitakoa izango da indarrak berreskuratuz eta ondorengo egunetarako egitarauari aurre egiteko prest jarritz.

ERREDAKZIOA

Uztailaren 26tik abuztuaren 1era, Norvegiar Europako 17 urte azpiko Halterofilia Txapelketa izan zen. Jon Sasiain zizurkildarra aritu zen bertan.

Sasiainek ez zuen zorte handirik izan, batetik bere gaztetasunagatik, 15 urte besterik ez ditu; eta bestetik, 62 kilo pisatu ordez 59 kilo pisatzen dituelako. Hala ere, haren ingurukoek, «retorkizun handiko pultsularia» dela aipatzen dute.

Bestalde, irailaren 12an, Zizurkilgo festen baitan, XIII. Elbarrenako Trofeoa hartu zuten parte Zizurkilgo eta Villabonako pultsulariek.

Ekaitz Kortajarenak lortu zuen txapelketan lehen postua. Norgehiagoka honetan, Gipuzkoako hiru errekor berri ezarri zituen 56 kiloko kategorian: 85,5 kilo altza zituen arrankadan, 105 kilo bi denboratan eta 190 kilo total olinpikoan. Gorka Lopezek bigarren postua eskuratu zuen.

Jon Sasiainek, Euskadiko errekorra hautsi zuen 62 kilotan, 82,5 kilo altza baitzituen arrankadan. Jon Lopezek lortu zuen laugarren postua, bosgarrena Jon Ander Iriarterentzat izan zen, seigarren Mikel Quintana gelditu zen eta zapigarren Igor Sasiain.

Hurrengo txapelketa, berriz, gaur izango dute pultsulariek, norgehiagokan arituko dira Antsoaingo (Nafarroa) Trofeoa lortzeko.

VILLABONA ▶ EUSKARA

Euskal dantza ikastaroa antolatu du Oinkarik

Adinaren arabera hiru taldetan banatuko dituzte haurrak entseguak egiteko

ERREDAKZIOA

Oinkari dantza taldeak zazpigarren urtez haurrentzat euskal dantza ikastaroak antolatu ditu. Gaztetxoan artean dantzarako grina bultzatzea da taldearen helburua.

Hiru taldetan banatuko dituzte haurrak hiru urtetik hasita; txikien taldean, 2000-2001 urteetan jaiotakoak egongo dira, 17:00etatik 18:00etara bilduko dira eta bost euro ordaindu beharko dituzte hilean.

Ertainen taldekoak, 97-99 urte bitartean jaiotakoak, ostiralean 18:00etatik 19:30era bilduko dira zazpi euro ordainduta. Eta handien taldea,

96an edo lehenago jaiotakoak, astelehenean 18:30etik 20:00etara egongo dira, hauek ere zazpi euro ordaindu beharko dituzte hilean.

Entseguak Txermingo Ikastolako ganbaran egingo dituzte astero.

Izena emateko hiru modu jarri dituzte Oinkari dantza taldeko kideek: batetik, Villabonako liburutegi gainean dagoen euskaltegian egongo dira kideak irailaren 22an, 23an eta 24an, 18:00etatik 19:30era.

Bestetik, izenak, harremanak@oinkari.net zuzenbidean hartuko dituzte; edo bestela, 660 13 93 80 telefonora deituta eman daiteke izena.

VILLABONA ▶

Euskara ikasi nahi dutenentzat laguntzak

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak, euskara ikasi nahi dutenentzat laguntzak eskainiko ditu.

Talde homogeneoak herriaren sortuz gero, bertan aritzeko aukera izango da eta Udalak irakaslea jarriko luke.

Bestela, beste herri batera joan behar duten ikasleentzat, Udalak %75a ordainduko du ikasturte amaieran. Horretarako, Villabonan erroldatua izan beharko du, gutxienez %85eko asistentzia izan, aldeko txostena izan errendimenduari dago-kionez eta matrikula ordaindua izatea eskatuko da. Informazio gehiago, 943 69 35 01 telefonoan izango dute.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona. Anbulat.: 00 69 70

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa M.I. Kale Nagusia, 7 Tolosa. 943 67 06 48.
Gimeno A. Elbarren 52 (Leitza) 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aitzondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegaldea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaidea. 687 41 01 18.
leitzaidea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Pisua. Pisu edo logela bat alokairuan hartu beharra Tolosan. 669 50 21 81.
Kabina. Kabina alokatzen da masaje edo estetarako. 686 37 86 63.
LANA
Emakumea. Emakumea behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 67 59 40.
Villabona. Neska behar da Villabonako taberna lan egiteko 07:00etatik 13:00etara. 650 48 79 34.
Leitza. Pertsona behar da asteburuetan Leitzaoko tabernan lan egiteko. 619 45 02 49.
SALGAI
Opel. Hiru urteko Opel Zafira salgai. Deitu. 618 37 15 43.

GARAGARDO FESTA ▶

Apar artean, Festan

Enhunka lagun elkartuko dira egunero VI. Garagardo Festan; herenegun egin zuten kirol taldeek irekiera ekitaldia, eta igandera bitarte izango da zer jana eta zer edana Zerkausiko arkupeetan

L. ETXEBESTE - L. MONTES



Errez bete ziren herenegun Zerkausian eta Solana kalean zauden mahai eta eserlekuak. www.scolalab.com

«Topa honekin zabalten dugu aurtengo Garagardo Festan. Hala eman zuten hasiera VI. Garagardo Festari herenegun Iruñean Realeko jokalariei Guri Uranga Ibarriak eta Mikel Alonso tolosarrak, herriko kirol taldeetako ordezkariak eta udal agintariak alboan zituzte. Zabaldu eta berehala, erruz bete ziren herritarrek Zerkausiko arkupeetan eta Solana kalean zauden mahai eta eserlekuak.

Barraren atzean, lanpetuta zebiltzan hara eta hona Tolosa CF Igarondo eta Igarondo Urpakoak iperletra taldeetako —Tolosaldeko Iper Kirol Taldea osatzen dute hirurek—. Hegoalde areto futbol taldeko eta baso eskolako kirolak. Bikotako jendetzak ez zituen, hala ere, ezustean harapatu: izan ere, urteko urtera jende dezenteko erakartzen du Garagardo Festak. «Beti bezala, jende asko etorri da Gura gorabehera, urtero kopuru antzekoa izaten dugu hemen. Hori bai, aforlortuan jende gehiago pilatzen da, eta lanean ere eragin du bereko.

Xyandaka jarduten dute lanean kirol taldeetako kirolak eta laguntzaileak. Nalio bakoitzeko, hamabaina ordezkari artzen dira garagardoa eta jakitx zerbiztzen. Galtzenek, gainera, egun guzietan egin behar izaten dute lan. «Hala ere, aurkitzen dugu disfrutatzeko unerikio, dio Hegoalde areto futbol

EGITARAUA ▶

- ▶ **Ordutegia.** 18:00etatik 24:00etara izango da gaur azoka gurea zabalik Zerkausiko arkupeetan. Bihar, berri, 18:00etatik 23:30era irekiko dute.
- ▶ **Ekitaldiak.** Gaur, 17:00etan, birindulari proba herrian zehar, Onako Tarrindulari Eskolak antolatuta —hiru maila: 5-8 urte, 9-10 eta 11-12—, 18:00etan, Gunguay palazok, Plaza Berrian, doan, 20:00etatik 22:00etara, Vista Alegre baingira ibiliko da Zerkausian. Bihar, 17:00etatik aurrera, haur jolasak izango dira Santa Maria plazan eta Tolosako Kale elkarrean erakusketako Plaza Zaharrean.

taldeko ordezkari batek, barre artan.

Dirusa bitzea da Garagardo Festaren helburu nagusia. Herriko kirol taldeek «behar handiak» izaten dituzte urtean zehar, eta gastu horietan aurre egiteko bidean onakoa laguntzen die festa honek: «Lortzen dugun diruari esker, gutxiago eskatu behar izaten diegu kirola egiten duten haurren gutxiagoei eta kirolariari. Lan handia ematen du horrelako ekimen bat prestatzeko, baina emaitzak ikusita, merezi du. Herriagatik jarraitzen dugu Garagardo Festa antolatzen. Dirua bitzearen gainean, ojandien erakartzea eta

FELIPE ALTUNA ▶ HARAKINA

«Haragi pastela ekarri dugu jendeak saltxitxa mota berria proba dezan»

Felipe Pati, Mari Jose eta Inma Altuna anal-arrebek saltxitxak egiten dituzte urtero Tolosako Garagardo Festara eramateko. Aurtun, berrituntza moduan, haragi pastela aurkeztu dute. Altxara haragotzat bertan ere eskaintza zabalda egiten dute urte osoan. Saltxitxa gorri eta zurien inguruan muntatu da Hirsarekin Felipe Altuna harakina.



LEIRE MONTE

Noiztik egiten dituzte saltxitxak?
Duela hamar bat urte hasi ginen saltxitxak egiten haragotzat. Tolosako Garagardo Festa hasi zenean, orain dela sei urte, parte hartzea bururatu zitzaigun, eta urtero joaten gara haragotzera. Dena den, urte osoan saltxitxak erosteko aukera eskaintzen dugu haragotzat bertan.

Noiztik eramanen dituzte Garagardo Festara?
Frankurt (saltxitxa gorria) eta Bratwurst (zuria) eraman izan ditugu urtero orain arte. Eta aurtun, berrituntza moduan, haragi pastela aurkeztu dugun; hurburgesa txurakoa da, eta

xerratuta zerbiztatzeko da ogi artan.

Eta bakoizetik, zenbat?
Guztira, 5.000 saltxitxa inguru eramaten ditugu urtero. Normalean, kopuru bera izaten da bakoizetik: 2.500 saltxitxa zuria, eta 2.500 gorri. Aurtun, hurburgesa bakoizetik 1.700 egun ditugu gutxi gorabehera.

Gustuko al ditu jendeak saltxitxak?
Bietatik oso ondo jaten zuen

herria giro ona sortzea ere badira festaren helburuak.

«Antzeko eskaintza izaten du —gu urtero garagardoei dagoelenean, jendeak batzuk batzuk aukeratzeko dituzte probatu, eta gehien gustatzen zaiena errepikatzen egiten du. Hala ere, bada beh-behi garagardo mota bera edaten duenik: ohitura mantentzeagatik egiten dute bakoizetik».

Horiak, zuria, ilunak, gorriak, alkoholik gabekoak eta horien artean Hoegaarden, Paulaner, Murphy's, Guinness, Eta Buckler O', König Ludwig, dira eska daterkeentzako batzuk. Belgikakoak, Alemanianoak, Euskal Herrikoak, Txikiak, Irlandarrak, Eskoziarak eta Ingalaterrakoak dira. Batzuk arruntak, eta besteak bereziak. Guztiak, 27 mota au-

CUPEA Pintxoak, ogitartekoak eta gure asarberria
Hala berriz, 2017 TOLOSA Tel.: 943 67 20 70

IRRINTZI TABERNA ogitarteko eta plater konbinatuak
Ond. kate, 1. Tel.: 943 65 42 14 TOLOSA

BIKUTZ Gu ere garagardo azokan!
Gaurtik plaza, 1 • TOLOSA

Cafe Iruña Garagardo azokan ondo pasatzen
Pintxoak eta plater konbinatuak
Gaurtik plaza, ogi-taberna Tel.: 943 61 85 85

Beti onki jatekoa
Garain gorriko janariak Arrakiaten berezia
Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremendi kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Ono pasa Garagardo azokan!
OLASAGASTI ANAIAK
Tel.: 943 67 28 78 Agintari, 9 • berriz 20400 TOLOSA

Ono pasa garagardo Festan!
Laiier TABERNA GOSARIKAR ETIA MUSIKAR ONA
Arrostegia • TOLOSA • 943 67 51 19

TOLOSAN SALTXITZEN
Etor zaitez!
Tolosako saltxitxa onenak probatzera bai Garagardo Festan eta urte guztian

ESNAOLA ETA URRUZOLA MUSIKA ESKOLA
SOLFEOA-KORDEDEIA-PIANOA-TEKLADOA GITARRA-TRIKITIA-PANDEROA eta ARMONIA KORDEDEI, TRIKITI eta TEKLATU taldeak
Forsten etorb. 9 - Iarriplana • TOLOSA • Tel.: 943 65 13 82

Exkabezioak Lur mugiketak, eskollerek eta Garrisolak
Tel.: 943 65 37 21
Tel./Fax: 943 65 00 78
Errotalegua: Pof. C/1. beheko 20273 ANOETA

PERU, S. L.

berria
publizitateko publikigiragarrietan
Tel.: 943 30 40 30
Tel.: 943 30 40 30

AITZOL UDAL EUSKALTEGIA
MATRIKULA ZABALK - IRAILAREN 21 ARTE
Euskara zure neurira
Euskalduntzen-faboretzen-EGA hizkuntz eskolazunak-HABEREN mailan ezarretako euskaltegietan bertan...
Klase presentzialak; euskolegiari, erpresari, ikasketekin, zure lanekin.
Klase ez presentzialak (laurtikakuntza)
Zuzen erabaki non eta noiz
Gorputzko: 34 9 20900 TOLOSAN
Tel.: 943 65 10 06 • Fax: 943 65 23 43 • Fax: 943 65 12 44
E-mail: aitzolud@tolosakoudala.net

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA
WEB ORRIEN DISEINU ETA PROGRAMAZIO IKASTAROA (TXEKINBIDE)
Iraupena: 210 ordu.
Nori zuzendua: limgabezian dauden gizon nahiz emakumeentzat
Programa:
- DREAMWEAVER MX (40 ordu) & PHOTOSHOP (30 ordu)
- ANIMACION CON FLASH MX (50 ordu) & ASP (50 ordu)
Lantegietako praktikak: 100 ordu.
Guztira: 310 ordu.
Matrikula: www.scolalab.com, hasiera hasiera 20400 irailaren 27an, informazioa hantxean, telefonoa 943 65 11 47

KARMENTXU taberna
Plater konbinatuak Bokadilloak Ensaladak Pintxoak
Etortri garagardo azoka gurekin ospatzen!
Erremendi kalea, 24 • beheko TOLOSA

ASTEASUARRA pintxoak eta giro ona
Erremendi kalea, 14 • Tel.: 943 67 31 86 TOLOSA

orbela mokau bereziak
Arrostegia 22 • Erremendi, 10 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 016 780

ZAHARKINAK
TOLOSA

aranburu jauregia Tolosa
Miren Gonzalez Pintura
irailaren 3tik urriaren 9ra
May Colmenero Pintura
irailaren 3tik urriaren 9ra
Ordutegia: jateguretan eta astelehenean izan esk. 17.30 - 20.30
Sio. Maria plaza, 4 • Tel.: 943 67 48 11 - Fax: 943 67 32 98

IBARRA ▶ KIROLAK

Sestaon jokatu du bihar Ibarrak

Bigarren partidaren ere arerio indartsua izango dute aurrez aurre Ibarrak

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den igandean eman zioten aurtengo ligari hasiera Ibarra areto futbol taldekoek eta maila ona erakutsi bazuten ere puntuak etxetik kanpo aldegin zuten.

Oraingo honetan, galdutako puntu horiek errekupeartzeko aukera izango dute Cesar Roca caren mutlekin Sestaon, bertan jokatu baitute bigarren partida.

Lehenengoan Atenea Gas-teiztarren aurka jokatu zuten, eta estraineko partida izateko aurkari zaila egokitu zitzaion Ibarrarrei. Bigarren honetan, ordea, gauzak ez dira gehiago aldatuko, Sestaon arerio gogor eta indartsua izango baitute aurrez aurre. Sestaorarak sailkapeneko gorako postuetan izaten ohi-tuta daude, eta horretaz gain, Zilarrezko Mailara igo ziren duela hiru denboraldi, hurrengo urtean berriro Lehenengo A mailara jeitsi baziren ere, beraz, talde indartsu baten aurka izango diren zalantzarik ez dago.

Hobetu beharrekoak

Pasa den igandeko partidaren lagunartekoetan baino lan handiagoa egin behar zuela argi geratu zitzaion taldeari, egin zuenarekin ez baitzen nahikoa izan irabazteko.

Baina, akatsetatik ikasi beharra dago eta hori egin behar du orain taldeak, hau da, partidaren egin zituzten okerrak zuzentzen saiatu, bai jokalarien aldaketan bidez edo joko estrategia berriak erabiliz.

Taldearen atzealdean hutsune ugari nabaritu ziren partida horretan. Defendatzeko or-

duan izan ziren beraz, akats nagusiak, baina jokalariek asko gazteak direla kontuan hartzen badugu, hau ulertzeko izan daiteke. Hauetako asko oraindik ere talde berrira egokitzen ari da eta honek bere denbora eskatzen du. Gainera, aldaketa handia nabaritu dute askok lehengo urtetik hona, goragoko kategoriatan jokatu ari baitira eta honi aipaturiko egokitzea batzen badiogu oraindik azkarregi dela ondorioz atertzeko esan genezake.

Cesar Roca entrenatzaileak lan handia egin beharko du talde hau osatu eta indartu nahi badu. Jokalariek, gainera lan horretan laguntzeko asmoa azaltzen ari dira, jokatzeko gogoz ari baitira. Gazteak dira gehienak eta hori nabari da, baina gazte izateak indar eta gogo bereziz eta guztia eman-gotuta esan nahi du baita ere, edozein talderen aurka koldu gabe jokatzeko gai direla erakusten dutelarik.

Liga hasi besterik ez da egin eta oraindik talde berri honen jokoa ikusteko dago. Lehenengo partidako urduritasunak alde batera uztea geratzen zaio taldeari, orduan ikusiko baita bere benetako maila.

Jarraitzaileak, bestalde, ez zaizkie falta ibarrarrei; pasa den astean Belabieta kiroldegia jendez bete zen, eta bihar-koan ere asko izango dira Sestaora taldea animatzera joango direnak.

Bihar eguerdikoa hamabietan du hitzordua Ibarra taldeak. Talde indartsua dela erakusi beharko du Sestaon irabazi nahi badu, azken hauek lehen partida etxetik kanpo irabazi eta gero konfiantza osoz jokatu baitute.

ANOETA-IRURA ▶ HEZKUNTZA

Bi ikastolak omenduko dituzte gaur Bilbon

Ikastolen elkartearen irekiera ekitaldian izango da, Zilarrezko Q-a lortu zutelako



Abenduaren 11n jaso zuten bi ikastolek Zilarrezko Q-a. HITZA

I. TERRADILLOS

Gaur goizeko 11:30ean Partaide ikastolen elkarteak antolatutako 2004-2005 ikasturteko irekiera ekitaldia egingo da Bilbon, Deustuko Unibertsitateko Paranimfoan.

Ekitaldi honetan hainbat izango dira omenduko dituztenak. Batetik, Anoetako eta Irurako ikastolak omenduko dituzte, beste ikastola batzuen artean, Kalitatearen Zilarrezko Q-a lortu zutelako. Baina, hauetaz gain, Kerman Hernandez Urretxindorra ikastolako guraso ohia, Juanjo Gomez Partaide ikastolen elkartearen langilea eta berrogei urteak beteak dituzten Euskal Herriko zortzi ikastola omen-tzea izango du helburu ekitaldi honen.

Bestalde, Anjeles Iztueta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua eta Koldo Tellitu, Partaideko lehendakaria ari-tuko dira hizlari bezala, izango den hitzaldian, Maddalen Iriarte eta Julio Ibarra kazetari-ek egingo dituztelarik aurkezle lanak.

Musikarako tartea ere izango da Deustuko Unibertsitatean izango den ekitaldi berezi honetan; Izaskun Arruabarrena sopranoaren emanaldia izango da entzungai, Oscar Kandendo Zabala pianojoleak bere doinuekin lagunduko diolarik.

Zilarrezko Q-a

Anoetako Herri Ikastolak eta Irurako Ikastolak 2003ko abenduaren 11n jaso zuten Donostiako Kursoaren egin zen sari ekitaldian Kalitatearen Zilarrezko Q-a. Mila Ugartemendia, Anoetako Herri Ikastolako zuzendari izandakoa izan zen Anoeta eta Irurako ikastolen izenean ohol-tza gainera saria jasotzera igo zena egun garrantzitsu hartan.

Anoetako eta Irurako ikastolez gain, beste lau ikastola gehiago ere izan ziren egun hartan Kalitatearen Zilarrezko Q-a jaso zutenak. Gaur egingo den ekitaldian omenduko dituzte egun hartan Zilarrezko Q-a jasotakoak eta lehendik ere bazutenak.

IBARRA ▶

Ehoziriak eta bainika tailerrak abian dira

Aurreko ikasturterarte ehoziri lanak eta bainika tailerra Kaxkubi elkarteak antolatzen zuen Ibarren. Aurtengo ikasturteki aurrera, ordea, M. Karmen San Miguelek ematen dituen eskolen antolaketaz Kultura Saila arduratuko da. Hori dela eta, tailer honetan izena eman nahi duten pertsonak Benito Izagirre kultur etxean egin beharko dute. Izen emateko epea irailaren 30a, osteguna, izango da. Tailer honen iraupena urritik ekainera bitarte izango da, eskola egunak asteartean 15:30etik 17:30era eta ostiralean 10:00etik 12:00etara izango direlarik. Ikastaro honetan parte hartu nahi duenak 90,35 euro ordaindu beharko du, %10ko beherapena egingo delarik gazte txartelarekin ordainduz gero edo %50ko beherapena familia ugaria izanda. Informazio gehiagorako telefono zenbakia: 943 67 03 99

IBARRA ▶

Presoekiko jarrera salatu du Askatasunak

Ibarra Askatasunak taldeak *Eukal presoak etxean nahi ditugu* lelopean kartela jarri zuen atzo Ibarra udal-terreko atarian. Ekintza honen bitartez «gogor salatzen du EAJ, EA eta Ezker Batuak presoekiko duten jarrera» Askatasunak. Ibarra Udalen aspaldian aterata zuela aurrera dis-pertsioaren aurkako mozio bat baina oraindik ere beste alde batera begiratzen jarraitzen duela diote. «Gaur, *apartheid* politikoa praktikatzen duen Udal honek, nahia-go du PP eta PSOEren esku-tatik ibili herriaren borondate-ari bizkarra emanez» eta Ibarretxe Planak ez dituela preso politikoko arazoak eta «aurrez aurre izango direla euskal preso politikoen de-fentsan» gehitzen du.

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzaileak. Eusko Jaurlaritzan eta udaletan lan egiteko: Zarautz (6 lanpostu), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informazioa doan 943 65 01 93.
Gidariak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udal ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa doan.

eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak, garbitzaileak, zerbitzariak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta ikastetxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Udal haurtzaindegiek honako langileak behar dituzte: irakasleak, hezitzaileak, zaintzaileak eta laguntzaileak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Liburutegiak, harreregiak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan eta Foru Aldundian.

Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.
Laborategiko teknikari, laguntzaileak. Ur deparatzaileen kontrola, analisi klinikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Ezinduak. Erreserbatutako lanpostu finkoak. Gutxienez %33ko

ezintasuna duten pertsonentzat. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Basozaina. 17 postu libre Administrazio Publikoan. Informazioa doan. Deitu. 943 65 01 93.
Udalzaingoak. Lanpostu libreak udaletxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

GUTUN@K ▶



Orain lokalik ere ez Tolosa Bizirik taldearentzat

Tolosa Bizirik taldeak Tolosako Udalari bere jardura aurrera eramateko udaletxean kokaturik dagoen lokal baten erabilera eskatu zion. Udalak berriz, Gobernu Batzordea osatzen duten EAJ, EA eta EB-IU alderdien birtartez Tolosa Bizirik taldeari lokal hau ukatu egin dio.

Lokal honen erabilera ukatzeko, alpatutako alderdiek erabili duten argudioa ondorengo hau da: Tolosa Bizirik taldea, hauteskunde talde bat dela eta legez kanpo geratu zenez, Espainiako kode penalaren arabera hori ahalbideratzen duen arduradun politikoa horrelako taldeei zigorra letorkiokeela.

Tolosa Bizirik taldea ordea, ez da hauteskunde talde bat. Hauteskunde taldeek hauteskunde-

ak ospatzen diren eguna arte irauten dute eta ordezkariak lortuz gero udal talde bilakatzen dira. Ordezkariak legala lortzen ez badute berriz, talde hauen existentzia juridikoa amaitu egiten da. Eta hau da, hain zuzen ere, Tolosa Bizirik taldearen egoera juridikoa, nolabait adieraztearren, 2003ko maiatzaren 25eko hauteskunde eguna ondoren talde «alegal» bat gara, Tolosan jarduten duten, eta bide batez, esan dezagun Udalaren lokalak erabiltzen dituzten, beste hainbeste talde bezala.

Lokala ukatu diguten eta udal gobernu taldea osatzen duten alderdi politikoa, hau da, EAJ, EA eta EB-IUK, guzti hau guk bezain ongi edo hobeto dakite, horregatik orain arte Tolosa Bizirik taldeak inongo arazorik gabe Udalaren lokalak erabili ditu, bai Euskal Nortasun Agiriari egiteko, prentsaurrekoak egiteko, asteroko bilkurak egiteko edo hitzaldiak antolatzeako... Beti To-

losa Bizirik taldearen izenean eskatuak eta Tolosako Udalak inongo arazorik gabe utziak.

Orduan, zer dela eta orain lokalaren erabilera ukatzea? Bada, eskatu dugun lokala udaletxean bertan dagoenez, Udalean jardura politikoa bat aurrera eramatea ahalbideratuko ligokeelako, bertako erabaki guneetan gure parte hartzea posible egingo lukeelako eta, jakina, orain udalean existitzen ez den oposizio lana egin ahal izango genukeelako. Bestetik, beti bezala nahikoa delako PSOE edo PPKo bakarren batek eskua altxatzea EAJ, EA edo EB-IUkoak *firmes* jarri eta esana zintzo betetzeko.

Kasu honetan, PSOEko zinegotzi baina Tolosan Estatu Espainiarraren ordezkari papera betetzen duen Renedo jaunaren *aginduek* zalantzarik gabe argina izan dutela ziur gaude. Azken finean hori da bere lana, hain zuzen ere, EAJ, EA eta EB-IUK 2.500 tolosarren *apartheid*

politikoa gauzatzen dutela zain-tzea, PSOE berak ezin baitu bere kabuz *apartheid*-a aurrera eramán.

Beraz, PSOEek, lehen PPK bezala 2.500 tolosarren *apartheid*-a EAJ EA eta EB-IU gabe ezin baidute gauzatu eta azken hauek *apartheid*-ak onurak besterik ez badakarzkie, eta ez hori bakarrik, onuradun nagusiak eurak badira, zer da guk sinestuz behar duguna?

Emandako erantzuna ez behintzat, hori uda garaiko adar jotze bat besterik ez da izan eta.

PSOEek eta PPK ezker abertzalearen legez kanporatzea argi eta garbi defendatzen dute, baina disfrutatu, EAJk, EAK eta EB-IUK disfrutatzen dute. Eta zinez nabari zaie; ez dira Udalean hain gustura inoiz egon, ez dituzte hainbeste *zinegotzi* inoiz eduki, ez dute hainbeste diru inoiz irabazi... ez dute inoiz hain lotsa gutxi erakutsi.

AITOR IZTUETA ▶ TOLOSAN BIZIRIK TALDEAREN IZENEAN

ALEGIA ▶

150 txartel inguru, Languarre Egunerako

Atzo zen Languarre Eguneko bazkarirako txartelak eskuratzeke azken eguna; 150 txartel inguru saldu dituztela zehaztu dute Kultur Etxetik. Bihar Languarren bilduko dira alegiarrak urteroko babarrun-jatea egiteko asmoz. 14:30ean hasiko da bazkaria; hala ere, aurretik 12:00-etatik 14:00etara bitartean, sagardo-dastaketa egingo dute. Bazkal ondorenerako, berriz, haur jolasak antolatutako dituzte izakto harrera ona ikusita.

AMEZKETA ▶

Itsasaldeko paisaiak oinez igarotzeko aukera

Pasaiatik Donostiara, hiru kilometro inguruko ibilbidea, egiteko proposamena luzatu du biharko Buruntzunzin Mendi Elkarteak; bidean zehar, «itsasaldeko paisaia ederrak ikusteko aukera izango da», azaldu dute. Ibilbidearen inguruan, bestalde, ibilbide polita eta erraza dela esan dute elkarteko kideek. Ibilbidea amaitutakoan tren hartu edota alde zaharrean geratzeko aukera izango dute partehartzaileek. Oinezko ibilbide hori egin nahi dutenentzat 08:00etan Amezketa plaza jarri dute hitzordua. Alegian, 08:15ean hartuko dute, beraz, puntual ibiltzea eskatzen da.

IKAZTEGIETA ▶

Ostatu taberna eramateko izen-ematea zabaltzeak

Ikaztegieta Udalaren jabetzakoa den Ostatu tabernajatearen ustiaketa eskubidea esleitzeko lehiaketa deialdia ireki behar dela azaldu dute udaletxetik. Baldintza pleguak udaletxean izango dira eskuragai; aurkezteko epea hogege eguneko izango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argirtzen denetik.

ORENDAIN ▶ KIROLA

Urriaren 11n adostuko dute apustuaren nondik norakoa

Cantabrico tabernan bildu ziren herenegun Jesus Mari Ormaetxea eta Bixente Mitxelena segalariak orendaindarraren desafioaren inguruan hitz egiteko

OLAIA ESKITXABEL

Gaueko 21:00ak. Cantabrico taberna. Jesus Mari Ormaetxea, *Urki*, puntu-puntu iritsi zen hitzordura. Bixente Mitxelena Euskal Herriko eta Gipuzkoako sega txapeldunaren zain geratu zen bere laguntzaileen konpainian.

Mitxelena oiartzuarrak *Urki*-ren desafioa onartu zuela zirudien; laguntzaile batekin sartu zen apustuen munduan bilgune suertatzen den Tolosako tabernan.

Mahaiaren bueltan hizketan jardun zuten segalariak. Uztailan ordu eta erdiko saioan zainek kilo gehien moztu; hori izan zen Orendaino segalariak luzatutako desafioa. Saioa

Garaten (Andoingo zelaian) egingo litzateke Ormaetxearen proposamenaren arabera.

Mitxelenak «bi apustu handi galdu ondoren beste baterako gogo gehiegirik ez zuela esan arren, nire proposamena entzun eta bere proposamena aurkeztuko zuela esan zuen». Urriak 11rako hitzordua jarri zuten, «orduan apustuaren nondik norakoak lotuta uzteko asmoz», dio Ormaetxeak. Apustuaren zenbatekoa ere orduan zehaztuko dute.

«Euskal Herriko eta Gipuzkoako txapelketetan gehiago eman nezakeen; txapeldunorde sailkatu nintzen bietan». Apustuarekin, beraz, duen «arantza» kentzea espero du Ormaetxeak.



Urki eta Mitxelena atzo Tolosako Cantabrico tabernan. O.ESKITXABEL

HITZA, eskualdeko plaza **661 678 818**
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta Toki aproposa iragartzeko



AGENDA ▶

DEAIALDIAK

Ibarra. Bihar Izaskun izena duten emakumeen urteroko bilera izango da Izaskunen. 13:30an meza izango da, eta ondoren bazkaria Izaskun jatetxean. Izena emateko 943 67 59 27 telefonora deitu goizetan.

Tolosa. Arramele AEK euskaltegiak matrikula epea zabaldu du. 22tik 24a bitarte 18:00etatik 20:30era kale Nagusia 7, 2. solairuan edo 943 59 17 04 telefonon.

Tolosa. Hitzaldia: 'Zahartzaroko gaitzak nola antzeman eta nola aurre egin'. Astelehenean 18:30ean Harizpe elkarte 1. pisuan.

Tolosa. Zaharlinak, Tolosako ondare etnografikoa. Ferialekuan.

JAIK

Alegia (Kalebehera).

12:00etan, krosa, handi eta txikiarentzako; gero, haurren zintza karrera; 16:30ean ume jolasak; 17:00etan pala kanporaketak; 19:30ean sardin-erre jatea; 21:00etan zahagi ardoa eta ondoren, bertsolari gazteak, trikitixa eta helduen zinta karrera.

Tolosa. Extremadurako Astea. Tute, mus eta aro txapelketak 16:00etan La Jaran eta Lasarteko Semblante Andaluz taldea 18:00etan.

KIROLAK

Futbola

Gaur

▶ Tolosa-Casco Viejo (Euskal Liga Jubenila, Berazubi 17:00)

▶ Mariño-Tolosaldea (Lurraldeko 1. maila, Gal, Irun 19:30)

▶ Sanpedrotarra-Inburre (Lurraldeko 2. maila, Trintxerpe 16:00)

Bihar

▶ Tolosa-Zarautz (Goren maila, Berazubi 17:00)

▶ Sestao-Ibarra (Lehen maila A, areto futbola, Sestao 12:00)

▶ Danok bat-Tolosa (Kadete Euskal Liga, Bilbo 17:30)

ZINEMA

Tolosa. *Fahrenheit 9/11.* 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

Auzoetako festak bizirik

TOLOSA ▶ Atzo hasi ziren jaiak Izaskun auzoan haurrentzako ekitaldiekin eta musikarekin; gaur, sagardo dastaketa eta DJ Pantxo izango dira, besteak beste



Haurrak buruhandiekien jolasten atzo arratsaldean Zabalzarreta lorategietan. OLAIA ESKITXABEL

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko auzoteko eta herri txikietako festak bizirik daudela aldarrikatu nahi dute Izaskun auzoan aurtengo jaietan. Indarra galtzen ari direla konturatu arren, tinko eutsi nahi diete eta horretarako

egitarau bete prestatu dute asteburu honetarako, eskualdeko handi eta txikien jazarri.

Atzo arratsaldean hasi ziren jaiak txupinazoa eta buruhandiekien. Haurren ondoren, gazte eta helduagoen txanda iritsi zen trikipoteoa, sardin-jatea

eta musika estilo desberdinetako kontzertuekin.

Goizetik hasita

Gaur jarraituko du egitarauak goizetik hasita. Gazteluak eta haur jolasak izango dituzte 10:30ean. Arratsaldean berriz,

futbito txapelketaren finala jokatuko da 16:00etan. Ondoren sari banaketa eta umeentzako txokolatada eta karaokea jarri dute antolatzaileek. Berrito sagardo dastaketa —Isastegi, Zabala, Otazu, Aburuza eta Begiristain sagardotegiak— eta elkarrekin eskainitako pintxoaren dastaketa izango da 20:00etan. Eta, eguna bukatzeko, erromeria izango da 23:30ean, DJ Pantxo ariko delarik txosnetan.

Bihar izango dute Jai Batzordeak antolatutako egitarauko azken eguna.

Azkenik, batzordekoek bi ohar ere jakinarazi nahi dituzte. Bihar, La Piscina tabernaren eskutik bazkaria egingo dute auzoko plazatxoan eta horretarako txartelak erosi egin behar dira Iturri, Denak, Bodega, Bidebieta eta La Piscina tabernetan eta Dionisi dendan 15 eurotan —haurrek 8 eurotan—

Bestalde, aurten lehenengo aldiz, kamiseta batzuk jarri dituzte salgai *Auzoetako festak aurrera* leloarekin. Sei eurotan eros daitezke auzoko tabernetan eta jaietako txosnetan, bi koloretan —berdea edo morea— eta nahi adina neurritan.

Animoso ageri dira auzotarrak. Eutsi!

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Joxe Mari eta Idurre. Azkenean lortu duzue. Gora ezkonberriak eta gora bihotzak.



URTE ASKOAN

Igor Agirre Jauregi (Alegia). Gaur 2 urte. Aitona, amona, Maite eta Joxiren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzekin, urrezko ezteiek, ezkontzak, jaioterriak, zuzenbideak, eltorri...

HITZAren egutzatara:
Araba etorbidea, 5 beheko - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

943 67 14 27